

gizartea eta kultura garaikidea

APIRILA MAIATZA EKAINA 2022



ARTISTA AZ-KIDEA

Laida Lertxundi

8 topaketa

8 Topaketa eskola iragankor gisa pentsatuta dago, praktika pedagogikoak eta film bat ekoizteko prozesuen desmuntaketa batzen baititu zerbait berria sortzeko. Zortzi tailer eta filmaketa kolaboratibo horiek 16 mm-ko obra bat izango dute emaitza. Hona hemen 2021eko topaketei buruzko ohar eta pasadizo batzuk:

Lehen topaketa ekainean izan zen, [Usoa Fullaondoren](#) eskutik, eta, bertan, Anne Carson-ek Safori buruz idatzitako testu baten inguruan jardun ginen. Testuaren ideiak plano formal batera eramanez, triangelu forma eman genion desirari: espazioan objektu batzuk jarri, keinu bat asmatu genuen, eta gero beste pertsona batek esku hartu zuen, triangelu bat sortuz horrela. Handik egun batzuetara Urkiolara jo genuen, eta, han, objektuak hainbat konfiguraziotan filmatu genituen, eta mendian gora korrika egin eta flora eta fauna ere filmatu genituen.

Bigarren topaketa [Sirah Badiola](#) eta [Keira Greenerekin](#) izan zen, eta gorpuari buruz aritu ginen, Anna Halprin-en omenez. Sirah buru genuela, feldenkrais eta "danza presencia"-ariketak egin genituen Azkuna Zentroko auditorioan. Hurrengo egunean, maldan behera abiatu ginen Orixol mendiko pagadien bila (mapan Oriol jartzen du); bidaia luzea izan zen taldearentzat. Pagadian, oinutsik, skotomorphogenesis ariketa egin genuen, erritual moduko bat izan zen. Eszena berezi batzuk filmatu genituen Bea Setiénekin, haren gorputzarekin eta pago batekin. Ivonne Rainer-en filmak ikusi genituen.



Hirugarren topaketan, Anbotora jo genuen keinuen bila, paisaiak soinua sor zezan. Mendi-lepo batean geundela, oso temperatura baxuak harrapatu gintuen. Han, uztaileen erdialdean egon arren, hotz izan ginen. Azkuna Zentroan [Alex Alonso](#)



[Díazekin](#) egindako tallerrean, Pauline de Oliverosen entzute sakoneko ariketak egin, eta Cornelius Cardewren soinu-performance bat eszenaratu genuen. Hizketan aritu eta eztabaida egin genuen hierarkiak antolatzeari edo desegiteari buruz konposizio esperimental baten barruan. Kenneth Angeren filmak ikusi genituen.

Euskal Herriko mapa batekin hasten ditugu beti topaketak, eta bertan markatzen dugu filmaketa-saioan egongo garen mendirako bidea. Laugarren topaketan, [Ren Ebelek](#) gidatu gintuen ariketa eskuzabal batean, mapak sortzeko, oso ondo ezagutzen dugun leku bati buruz marrazteko eta idazteko, gero leku horiek modu kolektiboan batzeko eta mapa berri bat sortzeko. David Lamelas-en filmak ikusi genituen. Gorbeian, igoera luze-luzea eta klima aldakorra izan genuen, eta, beraz, denbora gutxi izan genuen filmatzeko. Alabaina, labirinto bat aurkitu genuen, eta, hor, Jimmy Schaus gure lagun iragankorra izan zen txakur-hartz moduko batekin ibili zen.

Bosgarren topaketan, [Clara Schulmann](#) etorri zen, eta harekin bakarka hautatutako off-eko ahotsak transkribatu genituen, eta talde-ariketa bat sortu genuen ahots horiek berriro gorpuztean. Hurrengo egunean Mugarrekolandara igo ginen, igoera gogorra eguzki galdatan. Toki batean gelditu, eta koreografia bat sortu genuen 16 mm-tan, gorpuztuz, testu eta ahotsekin. Tracey Emin, Annie MacDonell, Maïder Fortuné-ren filmak ikusi genituen.

Zuen zain gaude aurtengo topaketetan elkartzeko, 3 besterik ez baitira falta! Adi egon!

[Laida Lertxundi](#)